

## Xedapen Orokorrak

### HERRIZAINGO SAILA HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

#### Zk-345

AGINDUA, 1996ko urriaren 14koa, Herrizaingo eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuena, bide-hezkuntzan elkarrekin lan egiterari buruzkoa.

Trafikoari eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko Estatuko legeak gauzatzea dela-eta, Estatuko zerbitzuak transferitzeko urriaren 15ean emandako 3256/1982 Errege Dekretuaren arabera, Euskal Autonomi Elkarteko lurraldean bide-hezkuntzari eta -formazioari buruz egiten diren dibulgazio-kanpainak planeatzea Euskal Autonomi Elkartearen eskumena da. Ildo horretatik, Herrizaingo Saileko egitura organikoa ezartzen duen maiatzaren 14ko 108/1996 Dekretuaren 11.2 atalak dioenez, Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzari dagokio bide-formazio eta -segurtasunari buruzko dibulgazio-kanpainak antolatzea eta gauzatzea. Hala-ber, 11.3 atalaren arabera, Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzaren eskumena da, besteak beste, Euskal Autonomi Elkarteko beste organo batzuekin koordinatzea eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekiko elkarlana sustatzea, ikastetxeetan bide-segurtasunari buruzko berariazko programazioa egiteko.

Bestalde, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 4. atalean, euskal eskola publikoak bere helburuak lortzeko dituen bitartekoak zehazten dira eta, beste batzuen artean, berariaz aipatzen da ikastetxeek beren inguru geografiko, sozial eta kulturalarekin duten lotura estua eta elkarrekin lan egin beharra, jarduera- eta truke-plan bateratuen bitartez. Euskal Autonomi Elkarteko gainontzeko administrazio eta instituzioekin koordinatu eta lan egin beharra ere azpimarratzen da. Gainera, Lege horretako 49. atala betetzearren, Jaurlaritzak irakaskuntza-maila desberdinetako edukin curricularrak zehaztu ditu. Ildo horretatik:

- E.A.E.ko Haur Hezkuntzako curriculumaz ezartzeko abuztuaren 11n emandako 236/1992 Dekretuaren 4. atalean, etapa horretan ikasleei zein helburu lortzen lagundu behar zaien zehazten da; besteak beste, ingurune gertuena arretaz eta jakinminez behatzea eta aztertzea, ingurune hori osatzen duten elementuen ezaugarri eta propietate nagusiak identifikatzea eta elementu horien artean sortzen diren harremanetako batzuk ezagutzea.

- E.A.E.ko Lehen Mailako Hezkuntzako curriculumaz ezartzeko abuztuaren 11n emandako 237/1992 Dekretuaren 4. atalean, etapa horretan ikasleei zein gaitasun lortzen lagundu behar zaien zehazten da; bes-

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE INTERIOR Y DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

#### Nº-345

ORDEN de 14 de octubre de 1996, de los Consejeros de Interior y de Educación, Universidades e Investigación, sobre colaboración en materia de Educación Vial.

De una parte, el Real Decreto 3256/1982, de 15 de octubre, de Traspaso de servicios del Estado en materia de ejecución de la legislación estatal sobre tráfico y circulación de vehículos, establece como competencia que corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco el planeamiento de campañas divulgativas de educación y formación vial en el territorio de la Comunidad Autónoma. En este sentido, el Decreto 108/1996, de 14 de mayo, por el que se establece la Estructura Orgánica del Departamento de Interior, prescribe en su artículo 11.2 que es función de la Dirección de Tráfico y Parque Móvil organizar y desarrollar el planeamiento de campañas divulgativas de formación y seguridad vial. Así mismo, su artículo 11.3 señala como competencia de la Dirección de Tráfico y Parque Móvil, entre otras, la coordinación con otros órganos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, propiciando la colaboración con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en orden a lograr una programación específica de seguridad vial en los centros de enseñanza.

Por otro lado, el artículo 4 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca señala los medios que dispondrá la escuela pública vasca para conseguir los fines que pretende y destaca, entre otros, la relación estrecha de los centros docentes con su entorno geográfico, social y cultural, su colaboración mutua mediante planes conjuntos de actividades e intercambios y la coordinación y la colaboración entre las diferentes Administraciones e instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Además, y en aplicación de lo establecido en el artículo 49 de la citada Ley, el Gobierno ha procedido a la determinación de los contenidos curriculares de los distintos niveles de enseñanza. En este sentido:

- El Decreto 236/1992, de 11 de agosto, por el que se establece el curriculum de la Educación Infantil para la CAPV, en su artículo 4 señala los objetivos que esta etapa contribuirá a desarrollar en el alumnado y, entre otros el de observar y explorar el entorno inmediato con una actitud de curiosidad y cuidado, identificar las características y propiedades más significativas de los elementos que lo forman y algunas de las relaciones que se establecen entre ellos.

- El Decreto 237/1992, de 11 de agosto, por el que se establece el curriculum de la Educación Primaria para la CAPV, en su artículo 4 señala las capacidades que esta etapa contribuirá a desarrollar en el alumnado

teak beste, bizitza eta gizakien arteko harremanak arautzen dituzten oinarritzko baloreen garrantziaz jabetzea eta horien arabera jokatzeko. Horretaz gain, 6. atalaren 3. puntuan etapa horretako curriculum osatzen duten alorrak zehazten dira eta, bertan esaten denez, edukinen antolamenduan eta trataeran zehar-lerroak hartuko dira erreferentetzat eta, etapa horretarako, bide-hezkuntza aipatzen da bereziki.

– E.A.E.ko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum ezartzeko ekainaren 21ean emandako 213/1994 Dekretuaren 4. atalean, etapa horretan ikasleei zein gaitasun lortzen lagundu behar zaien zehazten da; besteak beste, gizarte funtzionamendua arautzen duten mekanismoak eta baloreak analizatzea —bereziki herritarren eskubideei eta betebeharrei dagozkienak—, eta horiei buruzko iritzi eta irizpide pertsonalak izatea. Horretaz gain, 6. atalaren 6. puntuan esaten denez, alor desberdinetako edukinen trataeran eta antolamenduan eta disziplinarreko planteamenduetan curriculumarekiko zeharkako lerroak hartu ahalko dira erreferentetzat eta, etapa horretarako, bide-hezkuntza aipatzen da bereziki.

Bide-hezkuntzari lotutako ohiturak hartzeari dagokionez, azken urteotan Herrizaingo Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila bat etorri dira helburuetan, eta zenbait jardura burutu dituzte elkarrekin. Horien artean, bereziki aipatu behar da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak parte hartu duela Euskal Autonomi Elkarte Bide-Segurtasuneko Batzordean, zein otsailaren 9ko 22/1993 Dekretuaren bitartez sortu baitzen, eta Bide-Segurtasuneko Plan desberdinei garrantzizko ekarpenak egin dizkiela.

Bizimodu osasungarri bat sustatzeko, bide-hezkuntzako ohiturak zabaltzeko eta gure gizarte arazorik larrienetako bati —istripu arriskuari, alegia— aurre egiteko, derrigorrezkoa da egintza-egitasmo bateratuak, zehatzak eta iraunkorrak gauzatea. Beraz, Sail biek egitasmo horiek gauzatzeko behar diren giza- eta ekonomi-baliadeak jartzeko konpromisoa hartzen dute.

Ondorioz, bide-hezkuntzaren arloko lankidetzaren mar-koa ezartzeko asmoarekin hauxe

#### XEDATU DUGU:

#### I. ATALBURUA.- XEDEA, LANKIDETZAREN EREMUA ETA ESKUHARTZEKO ESTRATEGIAK

##### 1. atala.- Xedea.

Bide-hezkuntzaren alorrean Herrizaingo Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak elkarrekin egingo duten lanaren eremua finkatzea da Aginduhonen xedea.

##### 2. atala.- Lankidetzaren eremua.

Herrizaingo Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak interes komuneko helburu hauek lortzen saiatuko dira, gerora gehitu daitezkeen kalterik gabe:

y, entre otras, la de apreciar la importancia de los valores básicos que rigen la vida y la convivencia humana y obrar de acuerdo con ellos. Así mismo en el punto 3 del artículo 6 se establecen las áreas que configuran el curriculum de esta etapa y se señala que en la organización y tratamiento de los contenidos se tomarán como referente las Líneas Transversales, destacándose entre otras para esta etapa la Educación Vial.

– El Decreto 213/1994, de 21 de junio, por el que se establece el curriculum de la Educación Secundaria Obligatoria para la CAPV, en su artículo 4 señala las capacidades que esta Etapa contribuirá a desarrollar en el alumnado y, entre otras, las de analizar los mecanismos y valores que rigen el funcionamiento de las sociedades, en especial los relativos a los derechos y deberes de los ciudadanos y adoptar juicios y criterios personales respecto a ellos. Así mismo, en el punto 6 del art. 6, se establece que en la organización y tratamiento de los contenidos de las diferentes áreas y en los planteamientos interdisciplinarios se podrán tomar como referente las Líneas Transversales al curriculum, entre las que destaca para esta etapa la Educación Vial.

Entre los Departamentos de Interior y de Educación, Universidades e Investigación, a lo largo de los últimos años ha habido una coincidencia de objetivos y unas actuaciones conjuntas en lo que se refiere a la adquisición de unos hábitos de educación vial. Dentro de las iniciativas comunes hay que destacar la participación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación en la Comisión de Seguridad Vial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, creada por el Decreto 22/1993, de 9 de febrero, y en especial sus importantes aportaciones a los sucesivos Planes de Seguridad Vial.

La promoción de un estilo de vida saludable y la adquisición de unos hábitos de educación vial, así como la necesidad de afrontar uno de los problemas más graves de nuestra sociedad, como es la accidentalidad, demandan unos programas de actuación conjuntos, concretos y permanentes en el tiempo, por lo que ambos Departamentos se comprometen a realizar las aportaciones humanas y económicas necesarias para la concreta ejecución de dichos programas.

En consecuencia, con el objeto de establecer el marco de colaboración en materia de Educación Vial

#### DISPONEMOS:

#### CAPÍTULO I.- OBJETO, ÁMBITO DE COLABORACIÓN Y ESTRATEGIAS DE INTERVENCIÓN

##### Artículo 1.- Objeto.

Es objeto de la presente Orden determinar el ámbito de colaboración en materia de Educación Vial entre los Departamentos de Interior y de Educación, Universidades e Investigación.

##### Artículo 2.- Ámbito de colaboración.

Los ámbitos de interés común a abordar por los Departamentos de Interior y de Educación, Universidades e Investigación, sin menoscabo de otros que se pueden incorporar en el futuro, son los siguientes:

a) Ikasleak bere ingurunean autonomiaz mugitzeko behar dituen trebetasunak lortzea.

b) Istripuetan eragina duten faktore garrantzizkoenak aztertzea eta istripuak non, nola eta noiz gertatzen diren jakitea, neurri prebentiboak hartu ahal izateko. Gainera, hezkuntzari dagokionez, arreta berezia jarriko da arrisku-talde nagusietan.

c) Jarduten duen eremua ezagutzea, trafikoaren aurrean prebentzio-jarrerak sortzea eta trafiko-arauen eta -seinaleen garrantzia baloratzea.

### 3. atala. – Eskuhartzeko estrategiak.

Hauek izango dira lankidetzaren honetako eremuan eskuhartzeko strategiaren ardatz nagusiak:

a) Bide-hezkuntzako eta -segurtasuneko profesionalak prestatzea.

b) Eskolako curriculumean bide-hezkuntzako gaiak garatzea.

c) Hezkuntzako materialak eta bitartekoak sortzea eta optimizatzea.

d) Elkarrekin lan egitea, lurralde-eremu eta administrazio-maila desberdinetan koordinazio-mailarik egokiena lortzeko, eta bideetako zein komunitateko bitartekoak ahalik eta ondoen erabiltzeko informazioa ematea.

e) Ikastetxeetan bide-hezkuntzako programen ebaluaketa, ikerketa eta esperimentazioa sustatzea.

f) Hezkuntza-komunitateko kide guztiek, bide-segurtasuneko profesionalak eta eragile sozialek parte har dezatela lortzea.

g) Sail bien iritziz garrantzi berezia duen beste edozein.

## II. ATALBURUA. – HERRIZAINGO ETA HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEN ARTEKO LANKIDETZARAKO BATZORDE MISTOA

### 4. atala. – Sorrera.

Lankidetzaren aurrera eramateko, Herrizaingo eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailek Lankidetzarako Batzorde Misto bat sortuko dute.

### 5. atala. – Osaketa.

Herrizaingo eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailetako Lankidetzarako Batzorde Misto honela osatuko da:

Lehendakaria eta lehendakariordea: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Bidezaingo eta Ibilgailuen zuzendaria eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Pedagogia Berrikuntzarako zuzendaria edo horien eskuordetza duten lagunak.

Kideak: sei izango dira, hiru sail bakoitzetik.

Idazkaria: goian aipatutako batzordekideetako batek egingo ditu idazkari-lanak.

a) La adquisición, por parte del alumno/a, de las habilidades necesarias que le permitan desenvolverse con autonomía en su entorno.

b) Analizar los principales factores que influyen en la accidentalidad, incidiendo educativamente en los principales grupos de riesgo y conociendo dónde, cómo y cuándo se producen los accidentes, para tomar medidas de prevención.

c) Conocimiento del medio en el que actúa, creando actitudes de prevención frente al tráfico y valorando la importancia del respeto a las normas y a las señales de tráfico.

### Artículo 3. – Estrategias de intervención.

Las estrategias de intervención en el ámbito de esta colaboración tendrán como ejes fundamentales:

a) La formación de profesionales de la educación y de la seguridad vial.

b) El desarrollo de los temas de educación vial en el curriculum escolar.

c) La elaboración y optimización de los materiales y recursos educativos.

d) La colaboración en aras a obtener un óptimo nivel de coordinación en los diferentes ámbitos territoriales y niveles administrativos y la información para la mejora en la utilización de los recursos viales y comunitarios.

e) El fomento de la investigación, la experimentación y la evaluación de los programas de educación vial en los centros educativos.

f) Obtener la participación de todos los componentes de la comunidad educativa, así como la de profesionales de la seguridad vial y agentes sociales.

g) Cualesquiera otras que a juicio de ambos Departamentos resulten de especial relevancia.

## CAPÍTULO II. – COMISIÓN MIXTA DE COLABORACIÓN INTERIOR-EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### Artículo 4. – Creación.

Para llevar a cabo esta colaboración los Departamentos de Interior y Educación, Universidades e Investigación crean una Comisión Mixta de Colaboración.

### Artículo 5. – Composición.

La Comisión Mixta de Colaboración de los Departamentos de Interior y de Educación, Universidades e Investigación tendrá la siguiente composición:

Presidente y Vicepresidente: Director/a de Tráfico y Parque Móvil del Departamento de Interior y Director/a de Renovación Pedagógica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, o personas en quienes deleguen.

Vocales: seis miembros, tres por cada Departamento.

Secretario: Actuará como secretario uno de los vocales miembro de la Comisión a los que se ha hecho referencia anteriormente.

Lankidetzarako Batzorde Mistoko lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria urtero aldatuko dira eta txandaka izango dira sail batekoak edo besteak.

6. atala. – Eginkizunak.

Hauek izango dira Herrizaingo eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailen arteko Lankidetzarako Batzorde Mistoaren eginkizunak:

a) Lehentasunak finkatzea, hala bide-hezkuntzako gai desberdinei nola horiek hezkuntza-arloan izango duten garapenari dagokienez.

b) Urteko jarduera-planetako ildoak proposatzea eta plan horiek gauzatzeko eta ebaluatzeko laguntza ematea.

c) Hezkuntza-materialen sorrera sustatzea, lan horretan orientatzea eta material horiek baloratzea.

d) Behar denean, gai bereziekin zerikusia duten erakundeekin harremanetan jartzea.

e) Urteroko eskuhartze-plan desberdinak gauzatzeko eta bide-hezkuntzari buruzko material curricularrak sortzeko behar diren egitura lagungarriak jartzea.

f) Bide-Hezkuntzako Parkeek ezarritako lan-ildoak sendotzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko urriaren 14a.

Herrizaingo sailburua,  
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,  
INAXIO OLIVERI ALBISU.

La Presidencia y Vicepresidencia así como la Secretaría de la Comisión Mixta de Colaboración rotará entre ambos Departamentos con carácter anual.

Artículo 6. – Funciones.

La Comisión Mixta de Colaboración Interior-Educación, Universidades e Investigación tendrá las siguientes funciones:

a) Establecer las prioridades de los diferentes temas de educación vial y de su desarrollo en el ámbito educativo.

b) Proponer las directrices de los planes anuales de actuación, favoreciendo su realización y evaluación.

c) Orientar, valorar y fomentar la elaboración de materiales educativos.

d) Relacionarse con los organismos pertinentes en los temas específicos que se requieran.

e) Establecer las estructuras de apoyo necesarias para llevar a cabo los distintos planes anuales de intervención y la elaboración de los materiales curriculares sobre educación vial.

f) Estimular la línea de trabajo marcada por los Parques de Educación Vial.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de octubre de 1996.

El Consejero de Interior,  
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,  
INAXIO OLIVERI ALBISU.